Egunkaria

euskaldunon

• ostirala • 1999ko ekainaren 18a -- X. urtea -- 2.646. zenbakia -- Salneurria: 125 pta. 6 libera





Rodriguez Menendez, 'El Frances'-en abokatua, tirokatu egin dute eta oso larri dago • 12

Hizkuntzen Eurokarta; Konstituzionalaren erabakia

Frantziaren zatiezintasuna auzitan jartzeagatik baztertu dute Eurokarta

Peryk, Poignant txostenaren egileak eta hainbat kultur eragilek gaitzetsi dute erabakia

Bernard Poignant



«Kontseilu Konstituzionalaren erabakia gogorra eta damugarria da hasitako lanari begira»

Jean Haritxelhar



«Hizkuntz arrazakeria da. Lege nagusia aldatu beharko du euren aurpegi itsuia ez agertzeko»

Nicole Pery



«Hizkuntza gutxituak ezagutzeko nahikaria du Gobernuak, eta gizarteari erantzungo diogu»

■ FRANTZIAKO Kontseilu Konstitucionalak baztertu egin du Hizkuntza Gutxituen Eurokarta. Gobernuak sinatutako ituneko 39 artikulutan ez du arazorik ikusten organo gorenak, baina sarrerako idatzian Konstituzioaren aurkako diren puntuak atzeman omen ditu. Batetik, bizitza publikoan frantsesa ez den hizkuntza batean mintzatzeak biztanleen berdintasuna zangopilatzen duela dio. Eta, bestetik, eremu geografiko berezietan hizkuntza gutxituen hiztunei eskubideak emateak Errepublikaren zatiezintasuna ere auzitan jartzen duela dio erabakiak. Oztopoa, beraz, Konstituzioko bigarren artikulua da. • 16-17

DAVID AGUILAR / EFE



Langile bat hil da eta bost zauritu Amurrioko enpresa batean

■ AMURRIO Ferrocarriles y Equipos lantegiko behargin bat hil zen atzo eta beste bost zauritu ziren leherketa baten ondorioz. Hildako langilea, 30 urteko M.B.N., Gurutzetako zaintza berezietako unitatera eraman zuten, baina ilunbarrean hil zen. Zaurituetako bat larri dago hirugarren graduko erredurekin. Beste lau beharginek, berriz, zauri arinagoak dituzte. Antza, altzairu likidoa galdara batetik bestera aldatzean gertatu zen eztanda. Eztandak kalte handiak egin zituen enpresan bertan eta argazkian ageri den bezala, sabaia altxatu zuen.

politika

■ **hauteskundeak**

Alliren aburuz, CDNk egonkortasuna emango lioke Gobernuari eta PSNk, aldiz, ez •6-9

gizartea

■ 647 gizarte eragile hurrengo astean hasiko dira Plan Estrategikoa lantzen

Prozesua abiatzeko eta eraginkorrago egiteko 23 arlotan banatu dituztela gizarte eragileak. Lanorduaren kanpainan 181 milioi pezeta (7,25 milioi libera) lortu zirela jakinarazi dute. •16

kirola

■ Alberto Albistegik agur esango dio futbolari denboraldia amaitzen denean •34

kultura

■ Euskadiko Orkestra Sinfonikoak bira egingo du Hego Amerikan hurrengo maiatzean • 46